

# Kalezuloetan barrena

Agustin Arrieta Urtizberrea

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa  
2005



Zumaiko Udala

*enskar  
txanpu*



# Kalezuloetan barrena

Agustin Arrieta Urtizberea

Julene Azpeitia 18. ipuin lehiaketa

2005

1. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Agustin Arrieta Urtizberea (ipuinarena)

© Zumaiko Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Elliott Murphyri (eta Olivier Durandi),  
besteak beste, *102. gelatik* izeneko abestiarengatik

-|-

Eguzkia punturik gorenean dago, zero aratzean sasoi betean. Ez da inon ere aldaketarik edo mugimendurik sumatzen. Badirudi basamortua denboratik kanpo dagoela, irreala dela. Xake-taularen antza du; taula gainean pieza guztiak beren tokian, geldirik, partida noiz hasiko zain.

Hodei bat agertu da, bakartia, eta mugimenduz eta denboraz bete egin du guztia, errealliterak ekarriz. Eguzki errukiberak hodeia musukatu egin du bere parean jarri denean, eta hodeiak, basamortuan dauden ostatuari eta emakumezkoari une bateko eta ustekabeko itzala oparitu eta gero, zerumugarantz egin du mantso-mantso, emakume zaharra berari begira dagoela jakin gabe. Bessiek, adineko andreak, pamela mugitu egin du begiak babeste aldera, eta bere baitara bildu da aulki kulunkariaren konplizitatearekin. Zerua utzi eta aurrerantz begiratu du, presondegia dagoen lekurantz. Harresi garaiak, bere txarrantxazko koroa eta guzti, presondegia inguratzen du lauki bat osatuz. Erpinetan zaingo-dorre bana, tinko, presondegia ez ezik, basamortu osoa bera ere zaintzen ari direla diruditenak.

Bessiek, kulunkatzeari utziz, katilu bat kamamila gerturatu du ezpainetara, behakoak presondegi ondoko hilerriera doan bidexkaren jarraipena egin duen bitartean. Zurrupada eman, eta kamamilaren beroak eraginda bezala, senarra atera egin da oroimenaren kobazulotik. Bi urte dira senarra hil zitzaiola. 'Ai ene Bunny! Nork esango zukeen presoen artean emango zenituzkeenik bizibidearen ondorengoak!' Orain dela bi urte hilik agertu zen hilerriaren parean, paseoan zebilela, eta bertan eman zioten lur hurrengo egunean.

Jesse —Bunny eta Bessieren semea—, ostatuko taberna jaso eta txukun utzitakoan, amaren ondoan eseri egin da kikara bat kafe eskuan. Aurretik pasatzen den errepidean bere arimaren isla ikusi du. Aspaldidanik berritu gabe, lau urte, errepide berria egin zutenetik, hain zuzen. Pitzadurak,

koskorak eta zuloak nonahi. Errepide berria egin zutenetik ostatuak lautadako bakardadea izan du lagun fidela. Munduko trastelekuan sartu zituzten ostatua eta errepide zaharra, baita Bessie, Bunny, Anne eta Jesse ere. Presondegian gauzak ez ziren gehiegi aldatu, lehen bisitan zetozenak orain ere badatoz.

Autorik ez da apenas igarotzen, eta Jessek, errepide zaharrari begira dagoela, errepide berria du gogoan, errepide berritik barrena bere burua ikusten du, San Frantziskorantz, Bunnyren auto handi eta zaharrean, autoz eta jendez inguratuta. Bessiek, ordea, autoak noizbait itzuliko direlako itxaropenari eusten dio. Jesseren kasuan ez bezala, oraina ez ezik etorkizuna ere errepide zulatuan ainguratu da.

Bunnyk kobazulotik kanpo jarraitzen du. Egia esateko, kobazulo horretatik gero eta maizago ateratzen da Bunny, eta gero eta denbora luzeago ematen du bertara itzuli gabe. Bessiek presondegiranzko bidean kokatu du Bunny. Egunero joaten zen paseoan bide horretatik. Ostaturik atera, errepidea zeharkatu eta presondegiranzko bidea hartu. Zaindariak agurtu eta gero, ezker aldera hartzen zuen eta hilerriaren ondotik pasatzen zen. Gero zerumugaranzko bidean abiatzen zen, eta basamortuko *Yoshua Tree* zuhaitz handienaren parean buelta eman eta bide beretik itzultzen zen. Ordu bete eta laurden, egunero. Hasiera batean, Bessie ere joaten zen, baina belauneko mina hasi zitzaionetik utzi behar izan zion. Geroztik aulki kulunkarian esertzeko ohitura hartu zuen. Bertan egoten zen Bunny bere bueltaxka ematen ari zela, Bunny hil zeneko asteen salbu. Aste hartan gaixorik izan zen Bessie, eta ohean eman zituen ordu gehienak. Gaixotasun hura eduki ezean, aulki kulunkaririk zuzenean ikusiko zukeen Bunnyren heriotza. Bessie ez dago ziur, ez daki zer nahiago lukeen, ikusi edo ez ikusi. Orain ere Bunny bidean barrena dabilela iruditu zaio Bessieri, eta irribarre bat sortu da haren aurpegian, Bunny oso gizon ona zelako; areago hil zenetik, gero eta hobea begitantzen zaio. 'Baten bat pasako al da gaurkoan?', xuxurlatu du Jessek. Galdera horrek oroimenaren kobazuloak Bunny zurgatzea eragin du. Amatek ez du denborarik izan aurpegiko irriñoa ezabatzeko, eta 'nik uste dut etorriko direla' erantzun dio Jesseri. Beste erantzun batek ez zukeen bat egingo aurpegi arrai harekin.

-II-

Eguzkiak eztanda egin du zerumugan eta basamortu osoa gorritu du. Presondegiko murruek ere handitasun kutsua hartu dute zerumugan sortutako argi goriaren eraginez. Haizea, esperoan egon eta gero, harrotu da, eta giroa oso azkar freskatu du. Bessiek burusi bat jarri du izter gainean, semeak ekarritako kafesnea hartzen ari dela. Ostatua hartu zuten zenbait pertsona atera dira oroimenaren kobazulotik. Gitarra jolea eta haren doinu ederrak dabilzkio biraka gogoan. Basamortuko errepidean gurrupila zulatatu zitzaion eta, haluzinazioa zelakoan, lautadaren erdian ostatua eta presondegia ikusi zituen. Bunnyk gurrupila konpondu zion eta bidenabar autoa prest utzi zion bidaiari luzeari ekiteko. Afaldu ondoren kantatzen hasi zen gitarra jolea, eta soro berdeak eta unaiak aipatu zituen, eta amodiozko istorioak, eta itzulbiderik gabeko gaizkileak, eta ostatu bakartiko 102. gela. Jendea oso gustura egon zen. 'Nik dantza egin nuen Bunnyrekin. Geroago, jaiari bukaera emateko, gitarra joleak

nirekin egin zuen dantza berak kantatzen zuen bitartean. Biharamunean joan zen. Eta Bunnyk musika-makina bat erosi behar genuela erabaki zuen. Jesse oso pozik jarri zen'.

Jesse zerumugatik zerumugara doan errepidearen erdian jarri da. Ez dago ilargirik. Basamortuko argi bakarrak ostatuan eta presondegian daude. Izarrak ere agertzen hasi dira, ttanttaka. Presondegiko harresi gaineko argi guztiak piztuta daude eta zaingo-dorretan dauden poliziek presoan mugimenduak irudikatzen dituzte, eta presoek ihes egiten dutela ikusten dute behin eta berriro. Metrailadore haienganantz lerratu, katutxoa sakatu eta tiroketak eragindako dar-darrean iheslari zulatuen harridurazko aurpegia dakusate. *Zaingo-dorreetako gaitza* deritzote. Zaingo-dorre bakoitzean nork bere preso hautatzen du, gogokoena; gogokoena akabatzeke. Preso bera behin baino gehiagotan izan daiteke tirokatua, eta gau berean eta une berean zenbait tokitan preso bera ager daiteke hilik. Presoak ere, alabaina, irudimena badu, eta ziegan etzanda dorreko zaindaria tximista batek desegin duela irudikatzen du. Akabatzeak eta berpizteak harresiaren barruan egunero gertatu arren, presondegia lasaia da benetan, estatistikoki lasaienetako bat, antza. Eskarmentu luzeko presoak dira gehienak, zahartzarotik gertukoak, trankilak, bada, gehienak.

Errepide ilunetik barrena urrats batzuk eman ditu Jessek. Ostaturik 100 metrora, errepideko zoruan, distira ezezagun bat antzeman du. Makurtu eta *San Frantzisko 250* idatzita daukan trafiko-seinalea ikusi du. Ozta-ozta irakur daiteke hiriaren izena. Areago, ziurrenik seinalean zer jartzen duen ez dakien batek ez luke asmatuko zer jartzen duen, herdoila, zornearen gisan, hiriari izena etenik gabe jaten ari zaio eta. Jessek, bere ametsa gauza posibleen eta probableen zorrora ekarri nahiko balu bezala, seinalea zutik jarri du eta errepide bazterrean hartutako harri baten bitartez zoruan iltzatzen saiatu da. Baina ez dago zulorik egiterik, kolpeen eraginez zorua zulatu beharrean arrakalatu baitu. Jessek harri meta bat egin, eta metaren barruan sartu du seinalea. Oreka ezegonkor batean geratu da eta kostata eutsiko dio igaroko den lehen haize bortitzari. Nolanahi ere, Jesse pozik itzuli da ostatura. Hotz dago giroa. Zeruko izar ahulek dir-dir egiten dute morse hizkuntzan mezuak bidaliko balituzte bezala. Pertsona bakan batzuk ostatura hurbiltzen ari direla iruditu zaio Jesseri. Baina berehala jabetu da pertsona horiek ez direla mugitzen ari. Giza itxura duten Yoshua Tree bakan batzuk baino ez dira, basamortuan barreiatuak dauden Yoshua Treeak, nola piezak xake-taulan mugimenduaren zain.

Bessie altxa egin da Jesse bueltan datorrela ikusi orduko, eta biak sartu dira barrura, elkarrekin hotzetik babestu nahian-edo. Amona eseri egin da ostaturiko leiho handienaren parean. Presondegiko argi tinkoek eta zeruko argi jostariak haren behakoa erakarri dute. Zerukoek hainbat eta hainbat mezu bidaltzen jarraitzen dute; besteak, berriz, mezu bakarrekoak dira. Gerorago, Jesse prestatzen ari zaizkion salda eta oilasko egosia afalduko ditu Bessiek.

'Badatoz Mike eta Stan', esan du berekiko Bessiek, poza eta tristura zein baino zein dabilzala bere gogoan. Mike eta Stan presondegiko poliziak dira. Aste honetan, haien txanda bukatutakoan, ostatura joan dira egunero zenbait kopa whisky eta pitxer zerbeza edatera. Biak auto berean datoz, eta Bessie hurbiltzen ari den argi bikote mugikorrari begira dago, hurbiltzen den mehatxu bati begiratzen zaion antzera.

'Bihar ez duzue lanik egin behar, ezta?', galdetu die Jessek Mike eta Stani. 'Zergatik diozu hori Jesse maitea?', erantzun du Stanek pistola eramateko gerrikoa sabelzorroan gora igoz. 'Gehiegi edan al dugu akaso?', jarraitu du builaka. 'Egia esateko, bai', adierazi du Jessek eskuak garbitzen ari dela. 'Ostirala, Jesse maitea! Ostirala!'

'Beno ama, ohera joateko ordua duzu!', zuzendu zaio Jesse telebista ikusten ari den bere amari. 'Bai, oraintxe, berriak amaitu ahala', ihardetsi du begirada telebistatik aldendu gabe. Telebista sabaitik gertu dago, apal batean, eta bertatik Bunny begiratzen ari zaio Bessieri. Telebistaren ondoko argazkian Bunny agertzen da San Frantziskoko Golden Gate zubi gorrian, irribarretsu, beti erabili izan dituen kremaileradun jertseetako bat soinean, eta haren atzean ume bat ikusten da korrika argazkilariari bizkarra emanda, argazkilariarengandik urruntzen. Jesse da. Bunnyren besoetan Anne ageri da aitari ileetatik tiraka. Bessiek salda katilua eta platera jaso ditu eta barran utzi ditu. 'Zer moduz gabilta gaur?', galdetu dio Stanek portzelanazko pitxerra eskuan duela. 'Hainbestean'.

Logelarantz abiatu da emakumea, Jessek beraren kopetan musu azkar eta automatiko bat utzi eta gero.

Presondegitik ostaturantz itzal mugikor bat datorrela ikusten ari da Bessie logelako leihotik. Kirol poltsa bat darama, beste garai bateko dirudien poltsa urdina. Emakumea oheratu egin da pertsona hori nor den jakin gabe. Argia itzali egin du.

Mike eta Stan sesioan ari dira. Mikek etxera joateko gogoaz azaldu du, baina Stanek pitxerrak bete ditzan eskatu dio Jesseri. Atea ireki egin da. Kirol poltsa daraman gizona ostatuan sartu da. Begi beltzak ditu, begi handiak, ilerik apenas ez.

'John, zer moduz!', egin dio harrera Stanek. 'Ondo'. 'Berriro kalean, ezta?', jarraitu du Stanek ia garrasika. John barraren beste muturrean jesarri da eta kafea eskatu du. Poltsa zoruan utzi eta telebistari begira geratu da. Bertan Bunny ikusi du, barrez, Golden Gate zubi gorrian. 'Non duzu ama?', galdetu dio Jesseri. 'Ohera joana. Zer moduz?'. 'Ondo'. Duela bost urte John leku berean eseri zen, poltsa urdina zoruan utzi eta gero.

Bessie ohean dago. Oroimenaren kobazulotik Bunny atera da bere kabuz, Bessie bera ustekabean harrapatuz. Oheratutakoan, eta urduri zegoenean, beti hasten zen Bunny danbolinetan, hortzen kontra bi azkazal txandaka joaz, erritmo bizian. Gaur Bessieri erritmo haiek etorri zaizkio gogora, baina ez kanpotik barrurako noranzkoan, alderantzizkoan baizik, gogoaren punturik sakonean dangada betean ari diren kanpai hotsen moduan. Hala, Bessie piztu egin da, begiak zabal-zabalik ditu, logaleak ihes egin du. Baina Bessiek badaki itxoitzen. Konturatu da paretan eskegita dagoen zaldi-zela hautsez beteta dagoela. Zaldi-zelako hautsa izan zen Bunnyk gela horretan kendu zuen hauts bakarra. 'Hautsa kentzea ez zuen gustuko'. *Luma* zaldia hil zenean beste zaldirik ez edukitzea erabaki zuen, eta orduz geroztik zela hor dago, eskegita, ispiluaren

ondoan, hautsez beteta. 'Bihar garbituko dut', egin du bere artean Bessiek, eta begiak itxi ditu. Kanpaiak mututu egin dira, eta loa bisitan etorri zaio.

'Zer da John? Oraingo honetan, zenbat denbora jasango duzu ziegatik kanpo?', xuxurlatu dio Stanek Johni, barraren mutur batetik besterako bidea estropezuka egin eta gero. Johnen begiek telebistan jarraitzen dute iltzaturik, eta tarteka Bunnyren irribarrearekin egiten dute topo. 'Stan, utz ezazu bakean. Hau ez da presondegia', jaulki du Mikek, Stan hasierako lekurantz eramaten ari den bitartean. 'Jesse, ba al dakizu? John orain dela bost urte atera zen kartzela honetatik, eta orain dela hiru berriro sartu zen ate beretik. Eta orain zer? Noiz arte John?'. Algaraka hasi da Stan. Kafea bukatutakoan leiho handiaren ondoan dauden aulkietarantz joan da John. Eseri egin da, eta konturatu da aulkia bero dagoela. Berotasun mota hori arrotza begitandu zaio, atsegina baina. Izarrek mezuak igortzen jarraitzen dute. Presondegiko argiteria irmoak hilerriko gurutzeak agerian uzten ditu, baita Yoshua Tree bat edo beste ere. Johnek kirol poltsa urdinetik kutxatxo bat atera du. Bertan indiar buruzagi bat ikus daiteke ahoan purua duen sheriff bati sua ematen. Kutxatxotik puru txiki bat atera du. Piztu egin, eta whisky basokada bat eskatu du. Orain ostatuan kezko bi zurrumbilo antzeman daitezke, bata Mike eta Stanen inguruan, bestea Johnenean. Sabaian biraka dabilen haizagailuak ez die uzten zurrumbiloei bat egiten.

'Jesse! Baietz John itzuli kartzelara urtebete bat pasa baino lehenago. Ehun dolar baietz', segitzen du teman Stanek. Mike bizkarrik gabeko eserleku altuan eserita dago, bi ukalondo barran bermaturik eta esku ahurrak masailetan. Etsipenak jota, ez baitauka alde egiterik, autoa Stanena da-eta. Mikek autoa ekartzen du presondegira eskuarki, batez ere ostiraletan, Stan ezagututa badaezpada, baina gaurkoan Jerryren garajeaz utzi behar izan du matxuraturik. Jerryk ostiralerako egingo ziola agindu zion asteazkenean. Behingoz ez du hitza bete. Jerryk Mike ikusiko balu oraingo egoeran, ulertuko luke zergatik erregutu zion autoa egin ziezaiola lehenbailehen. Dena dela, Jerryk ezin ditu aintzat hartu bere bezero guztien gorabeherak eta eskakizunak, eta Mikek hori ondo ulertu behar du eta ondo ulertzen du, etsipenak jota bada ere. Berari ere antzeko gauzak gertatzen zaizkio. Lehengoan Jesusek, mexikar presoak, baimena eskatu zion lan eramangarriago bat egiteko. 'Pikotxarekin zuloak egiteko ez nago. Gaizki egin dut lo, kalenturak jota', esan zion Jesusek Mikeri, erreguka. Begi-zuloek gardenki salatzen zuten egia. Mikek denbora laburra falta zela amaitzeko esan zion, 'eutsi Jesus, berehala bukatuko dira lanorduak', eta zaplada eman zion bizkarrean, aldi berean begia keinatuz, antza, elkartasuna adierazteko gogoz. Dena dela, Jesusek ordu laurden bat jarraitu zuen eserita, dardaraz, izerditan. Azkenean, altxa eta taldearekin bat egin zuen. Mikek mugimendu guztiak jarraitu eta aztertu zituen distantzia egoki batetik, mutu, pentsakor, Jesusi ezer esan gabe. Geroago, Jesus bere ziegan zegoenean, izerditan oraindik ere, bi polizia agertu ziren. 'Jesus!, kartzela-buruak zu zigor-ziegara eramatea agindu du. Lanorduei buruzko gaurko txostenean atsedean luzeegia hartu duzula baieztatzen da'. Mike, Jerry bezala, bezero guztien edo preso guztien gorabeherak eta eskakizunak ezin dituela aintzat hartu oldozten ari da. Pena ematen dio Jesus oraintxe bertan zigor-ziegan dagoela jakiteak, baina injustizia handia litzateke lanorduetan batzuek lan egitea beste batzuk eserita dauden bitartean. Norberaren eginbeharren aurrean beste guztiak berdinak dira, maila berean daude, justiziak hala agintzen du-eta.

'Baietz sei hilabete barru berriro barruan! Ez, lau hilabete barru! John, ez duzu erremediorik'.

Jesse aspaldiko aldizkari bat ikuskatzen ari da. Argazki dotoreak agertzen dira. Horietako batean Golden Gate ikusten da ortzadarraren baitan, zubi bat bestearen barruan, eta bien azpian itsasontziak, batzuk kairantz, bestetzuk itsas zabalerantz.

#### -IV-

Auto bat iritsi da. Motorra eta argiak aldi berean itzali dira. Emakumea ostatuan sartu eta zuzenean joan da Jesse dagoen tokira. 'Zer moduz Mary', galdetu dio Jessek aldizkaria alboratuz. 'Hainbestean. Eta zuk?'. 'Betiko martxan'. 'Jar iezadazu kafetxo bat'. Ondoan dagoen bizkarrik gabeko aulki altuan eseri da, eta larru beltzeko jaka erantzi du. Mary da ostatuarekin fidela izaten jarraitu duen bakarrenetako bat. Astero egiten du bisitatxoren bat. 'Zer moduz Mary?' galdera sumatu du bere garondoan. Galderaren atzetik Stanen ahotik ateratzen den kiratsa iritsi zaio. Stanek Mary ia bota egin du aulkitik behera. 'Stan! Urrundu zaitetz nigandik!'. 'Mary, ez da hainbesterako izan. Zu bezalako emakume ederra ezin da sumindu', jarraitu du Stanek temoso, begirada Maryren titietan paratuta. Mary altxa, eta erraldoi baten gisara Stan lodikotea Mike dagoen tokiraino bidali du bultzada batez. 'Mary, zer gertatzen zaizu?', builaka hasi da Stan lurrian eserita. Mikek lagundu dio altxatzen eta Maryrengana zuzendu du ahotsa. 'Mary! Errespetu pixka mesedez, kortesia apur bat mesedez'. 'Errespetu' eta 'kortesia' hitzek ustekabeen harrapatu dute jende oro, zerbaitek ostatuko leiho guztiak apurtu izan balitu bezalaxe, tupustean. 'Beno, beno, etxera joateko ordua duzue, ezta Mike?', sartu da Jesse. 'Mary! Hor duzu gizon puska bat zuretzat. John du izena', jarraitu du Stanek. Mike saiatu da haren ahoa estaltzen. Johnek atxiki sakon bat eman dio puruari, azkena. Hautsontzian amatatu du sadikoki, puruaren muturra zapalduz eta zapalduz. Buelta eman eta zerbeza bat eskatu dio Jesseri.

'Zer moduz John?' galdetu dio Jessek mexikar zerbeza mahai gainean jarri duenean. 'Gustura, baina horiek ez baleude gusturago. Musika-makina ba al duzue?'

Jesse musika-makinara hurbildu da, eta leiho txikitik ikusi du gasolina-hornigailu herdoildua. Bere arrebaz, Annez, gogoratu da. Bera zen gasolinaren arduraduna. Errepide berria egin zutenetik gero eta jende gutxiago hurbiltzen zen. Azkenekoetako bat izan zen Bill. Mutil jatorra. Hilabete batzuk geroago arreba eta Bill joan ziren, eta geroztik inork ez du hartu gasolina-hornigailuko tutua. Gurasoak eta Jesse bera poztu ziren bikoteak alde egin zuelako, bikote ederra osatzen zutelako, New York zutelako bizileku berria. Zortzigarren abestia aukeratu du, zoriz. Ahots lakarra hasi da kantatzen, saxoaren eta gitarren laguntzaz, *'Kalezuloetan barrena, kalezuloetan barrena. Gauaren pean motelki dantzatzen, Stockton's Wing-eko hondartzan, maitale etsituek aparkatzen duten tokian, eseri ginen Duke Street-eko azkeneko erregeekin...'*

Bessie esnatu da. Sarritan esnatzen da gauero. *'Kalezuloetan barrena, kalezuloetan barrena...'* 'Zertan ari dira?' Buelta eman du, eta nahi gabe gau-mahai gainean dagoen argazkiari kolpe bat eman dio eskuarekin. Zorutik hartu du itsuka, eta gau-mahaian jartzerakoan argia piztu du. Bessie, Bunny, Jesse



eta Anne agertzen dira irribarretsu. Haien bizkarrean gasolina-hornigailua, eta atzerago Yoshua Tree bat, familiako beste kide bat izan nahian edo. Billek atera zuen argazkia. Ahots lakarrak bere bidea egin du Bessieren gogoan barna, eta bertan pausatu da, *'Kalezuloetan barrena, kalezuloetan barrena,...'*

Stanek dantza eskatu dio Maryri, eta Maryk ez dio begiratu ere egin. 'Mary, mesedez', hasi zaio erreguka, arren eta arren, eta trufaka. Stan Mike dagoen lekura itzuli da. 'Jesse, Mike, zergatik haserretu da Mary nirekin?'

Stanek mintzatzeko gogoia berreskuratu du: 'Jesse, zertan ari da lanean Mary?' 'Saltzailea da'. 'Bai, hori banekien, baina zer arraio saltzen duzu?', oraingo honetan galdera Maryrentzat izan da, burlati. 'Ahal dudan guztia', erantzun du Maryk, errime. 'Orduan, zerbait izango duzu niretzat, ezta? Zer?, Zer?', kar-kar bizian ari da Stan. 'Stan!, utz ezazu bakean emakume hori', ausartu da esatera Mike. 'Jesse, jarriko al duzu lehen jarri duzun abesti bera?', jaulki du Maryk, aulki altutik jaisten ari dela. 'Noski'.

*'Kalezuloetan barrena, kalezuloetan barrena, gure autoetan kukubilkaturik, kanpai hotsen esperoan, gauaren bihotz sakonean, gaua guztietatik aske, korrika joateko kalezuloetan barrena, korrika joateko kalezuloetan barrena. Terry, zin egin zenuen beti biziko ginela elkarrekin, korrika, kalezuloetan barrena'.*

Mary Johnenganantz joan da. 'Dantza egin nahi al duzu nirekin?'. Johnek begiratu dio puruaren ke artean. Biak dantza egiten hasi dira, Johnek purua ahoan duela, eta Maryk *kalezuloetan barrena, kalezuloetan barrena* esanez. Maryk estutu du bere gorputza Johnenaren aurka. 'Kontuz horrekin, hemendik hiru hilabetera berriro presondegian izango dugu-eta', apurtu du eszena Stanek, pitxerra gora altxatuz, eta zerbeza guztia bere burura botaz.

Ostatua hutsik bezala geratu da ahots lakarra isildu denean.

John eta Mary eseri egin dira. Ez diote elkarri ezer esaten. Johnek indiar buruzagia eta sheriffa dauden kutxatiko puru bat eskaini dio Maryri. Stanek pitxerra zoruaren kontra birrindu du. Biraoka hasi da. Mary altxa egin da eta galdetu dio Jesseri, 'zenbatgarren abestia zen?' 'Zortzigarrena'. 8aren azpian *B. Springsteen* irakurri du.

*Kalezuloetan barrena, kalezuloetan barrena,...* Stan eta Mike sesioan daude. Stanek dantza egin nahi du Maryrekin. 'Ni haserretu nahian dabil, hirugarren aldiz abesti bera', esaten ari zaio Mikeri, txantxarik gabe.

'Yoshua Tree horiek pertsonak dirudite, presondegitik ostatura datozenak', bota du ustekabean Johnek. 'Ba niri ez zait hori iruditzen', jarraitu du Maryk. 'Nire ustean, ostatutik presondegira doaz'. Barre egin dute biek. 'Mary! Dantza egin nirekin' entzuten da ahots lakarrarekin nahastuta. *Kalezuloetan ezkutatu, kalezuloetan ezkutatu,...* 'John, nora joango zinateke oraintxe bertan?' 'San Frantziskora'. 'Ez dago oso urruti, joan gaitezke. 250 milia dira'. 'Serio ari zara?', galdetu dio Johnek. 'Bihar San Frantziskon pasa dezakegu egun osoa. Hurrengo egunean ez dakit'.

Mikek aterarazi du Stan ostatutik. 'Laster arte John, laster arte John, eta zuri ere, laster arte Mary, izango duzu nire berri'. Horixe izan da Stanen agurra. Mike jarri da gidariaren lekuan. Argiak eta motorra piztu egin dira aldi berean, eta urrundu dira.

'Zer, joango al gara?'. 'Bai', erantzun du Johnek, puru-kutxatxoa poltsa urdinean sartuz.

'Bazoazte?', galdetu du Jessek irribarretsu. 'Bai. San Frantziskora', erantzun dute biek batera. 'Etorri nahi al duzu gurekin?'. 'Ez, ezin dut, ama zaindu beharra daukat'. 'Bai, badakit, seme ona zara eta', bukatu du elkarrizketa Maryk, eta Jesseri muxu bat bidali dio esku ahurrean putz eginez.

Autoan sartu dira. Argiak eta motorra piztu ahala, atzeraka egin du autoak, eta gero eskuinaldera. Errepide zaharra hartu dute. Seinale baten ondotik pasa direnean, erori egin dela antzeman dute. 'Oker ez banago, seinale bat erori egin da', esan du Maryk harriturik. 'Hala iruditu zait niri ere. Dena dela, errepide honek ez du seinaleen premiarik'.

Errepide ertzean, tarteka, Yoshua Treeak agertzen dira, eta Johni iruditzen zaio San Frantziskora joan nahi duten pertsonak izan daitezkeela, erromesak. 'Zer egingo dugu bihar goizean San Frantziskon?', apurtu du isiltasuna Maryk. 'Itsasontziz San Frantziskoko badiatik Sausalitora joan'. 'Zergatik egin nahi duzu hori?'. 'Agian Alcatraz uharte ondotik igarotze aldera'. 'Presondegia ezin burutik kendu, ezta?' 'Ez, ez da hori. Gainera, orain ez dago presorik Alcatrazen. Orain turistak sartzen dira.' 'Eta?' 'Ba hori.' 'Baina gu sartuko al gara?' 'Ez, ez. Ondotik pasa, besterik gabe. Jakin nahi dut Alcatrazetik nola ikusten den San Frantzisko'.

Jesse, ohera joan baino lehen, eta tabernatxoa jasotzen ari den bitartean, eguneroko abestia entzuten ari da, *102. gelatik* izeneko abestia. John eta Mary gogoan ditu oraindik, baita Anne eta Bill ere.

*Gau honetan ilbetea behean dago; autoak pasatzen dira, eta joan egiten dira; etxerantz doaz maitasunaren deiari men eginez, eta ni, ni ez noa inora, ni inora ez.*

Izar uxoen gisara joan dira, John eta Mary.

-V-

Bessie esnatu egin da, eta arreta osoa jarri du ea zerbait entzuten duen. 'Badirudi Jesse ohean dagoela', ondorioztatu du. Beste aldera begira jarri da, eta loak segituan hartu du berriro.